

ASKATASUN BILAKATU NAIZ.

Zerumuga zeharkatzen kaioak saltoka dabilta eguzkia agurtzeko dantza polit bat eskainiaz. Olatuak eguzki izpiekin solasean ari direla dirudi. Ilunabarraren pean nago eta han urrutian ikusten den zamaontziaren fokuak gailentzen dira inguruko piztiak uxatuz. Errealitatera ohitu behar dut neure burua, pentsamendu argi horietatik at.

Momentu anitz izan ditut gertatu zaidana behin eta berriro hausnartzeko, batzuetan nire ahaleginak alferrikakoak iruditzen zaizkidan arren.

Itsasertzetik metro gutxitara aurkitzen da ni bizi izan naizen lekua. Leihotik begira jarri naiz. Beltzuneen ugaritasuna amaigabea da. Honez gero Neil Armstrong, Edwin Aldrin, Michael Collins eta bere kideak iritsiko ziren ilargira. Ilundu du jada eta ilargia hilgora dagoela senti dezaket, ni bezala.

Ohartu barik loak hartu ninduen! Nire irrati txikiak esnatu nau, bere eguneroko berriei: Neil Armstrong izan da lehenengo aldiz ilargia zapaldu duen gizona. Ilargian biziko nintzateke, lo nagoenean iluna ikusteko eta iratzarrita iluna sentitzeko. Isiltasunaren lekuko izan dira nire pentsamendu ilunak. Orain, ilargiak irri egiten didala iruditzen zait, bere ondora joateko deiadarka. Ilargia eta iluna dira nire erresumak.

Ni Roxanne naiz. Orain dela urte pare bat arte nire jaioterrian bizi izan naiz, Kalifornian. Ez dut herrialde hau txikitik ezagutzeko aukerarik izan, baina azken urteotako zalaparten berri izan dut. Iaz, 1968an, jaiotzez hemengoa den Richard Nixon Estatu Batuetako presidente izendatu zuten.

Hamazortzi urte bete nituenetik bakarrik bizi naiz. Orain hogeitabost dauzkat eta zamaontziak batetik bestera garraiatuz ibiltzen naiz. Hori izan da nire lanbidea orain dela bi hilabetez geroztik. Zoritxarreko ezbehar batengatik itsutasuna bihurtu zen nire bizitzaren ardatz, etorkizunaren oztopo.

Gaztea naiz oraindik, oso gaztea. Nire iraganaren soka luzeak zaharragotu egin nauenenaren beldur naiz.

Nire gurasoak II.mundu-gerraren amaieraren aurreko urtean hil ziren, 1944an, ni jaio eta hilabete beranduago. Nire familiaren hutsuneak kontrako norabidetik abiatzea besterik ez dit ekarri, zoritxarra bakarrik.

Orduz geroztik, gertakizun asko gertatu zaizkit, gehiegi denbora gutxian izateko.

Orain dela bost urte gutxi gora behera nire adin paretsuko mutil frantziar bat ezagutu nuen eta bi urtez egon ginan elkarrekin. Frantzia hegoaldeko hirietako batean ezagutu genuen elkar. Bera ostatu bateko jabe prestu baten semea da. Pierre Lefebvre da bera eta Parisen bizi da.

Bihotzak zeharo galdu du bere ohiko taupaden erritmoa. Orain, ironiaz eta atsekabez beterik ematen du taupada bakoitza, etsipenak zeharo jota.

Pierrek hitz emandakoa ez du bete. Bereiztu ginenetik bost urtetara nire bila etorriko zela agindu zidan.

Nire etxepeko kafetegian nago. Papiroa mahaiaren gainean jartzen dut bolaluma hatzekin norabidetzen dudana bitartean. Ez dut ikusten letren eta esaldien norabidea. Esamoldeen luzera bereganaino iristerainokoak izatea da nire nahia, behin-betiko bereganako sentipenak adieraziko baitizkiot, bereganako maitasun nahiak, eta, nola ez, bera utzi nuenetik jasotako zoritxarrak eta zigorrak.

Hala ere, idatziko dizkiodan azken lerro hauetan beraganako maitasun garrak oraindik ere piztuta dirauela gogorarazi nahiko nioke.

Kalifornia, 1969ko azaroa

Nire bihotzekoa:

Lehenik, nire musurik sakonena.
Behin-betiko agur esateko prestatu dizut gutun hau.

Udaberriko lora usaintsuen artean eta zeruko izarrik argitsuenetan oroitu beharko duzu nire ohiko irudia. Heriotza atzetik dabilkit eta ezin dut gehiago itxaron. Larregia da niretzat. Zoriturrez, beranduegi.

Barkatu hain idazkera sarkorrez idazten jardutea, baina jardun honek nire sentimenduak eta zureak biltzen dituelakoan nago.

Barkamena eskatzen ari naizen une honetan, agian zuk eskatu beharko didazulakoan nago. Gogoan al duzu emandako hitza? Ziur nago tuntun baten moduan geratu naizela zure aurrean zuretzat ohiko egun bat izango zelako, eta orain ni nor naizen ere gogoratu egingo ez duzulako. Baina, jakin ezazu zure banan-banako hitz horiek, oraindik liseritu ez diren hoiak barruak agindu zizkidala irensteko. Hortaz, zuregana jotzea beste erremediorik ez dut izan. Nire barruak askatzeko eta zureganako senti dezakedan maitasuna nolabait azaltzeko. Onartzen dut zurekin izandako maitaldi hark erabat itsutu ninduela. Maitasunak beti itsutu izan gaitu, gero damuak negar-malkotan adierazi behar baditu ere.

Kontua da, gehiago ez zaitudala ikusiko eta egin dudanaren damurik ez dudala sentituko.

Ez dakit gutun honen esanahiak harritu zaituen. Ziurrenik hala hobe izango da. Horrela nire beltz uneetan falta zaidan argi-zuloa tapatuko du, behin-betirako amaiera emanez, mundu honetatik at, beste erreinuren bati so eginez. Hala ere, jakin ezazu zu izango zarela nire benetako ausentzia, zure presentziaren jabe izaten utzi nitueneko egun xarmagarri horiek bihotzen baitaramatzat eta eramango baititut nire bihotzak bizirik edo behin-betirako itzalita egon arren ere.

Luzatzen ari naizelakoan nago. Bizitza osoa eramango nuke zuri idazten etenik egin barik. Honez gero, hitz penagarri hauek zure belarriak beratuko zituzten eta zure begiak lausotuko.

Esan bezala, oraindik argi-une apurrak dauzkadan arren, ez dut etorkizunaren biderik ikusten. Aski dut orain arte bizi dudanarekin.

Beraz, orain nahikoa daukat egunak argitzen duenero urrats soil bat egitearekin, geldotasunean eta norabiderik ez duen bidea bada ere.

Adio, Pierre. Adio betirako.

Roxanne

Beheko kafetegian jardun naiz honetan. Hala, isiltasuna eragozteko lanik ez nuen izango etxe-zuloan sartuta. Jendearen barre-algaren eta garrasi ganorabakoan artean bizitzea gustatuko litzaidake. Esaten ari naizenari kasu handiegirik egiten gabe, hobe. Izan ere, alboan daukadan whisky botelaren eragina izan daiteke. Dagoeneko mota guztietako edariak probatu ditut. Edari

bat bestearen atzetik. Penak argituko dizkidan esperoan nago, indarbako malkoak isuri arazten dizkidala iruditzen zaidan arren.

Negar-zotinEk musikaren erritmo berbera daramatzate. Erabat hunkiturik nago. Egoera hau benetan latza gertatzen ari zait.

Kafetegiaren alboan dantzaleku bat dago. Asko gustatzen zait bertako musika. Erromantikoa da. Letrak nik izkribatuko banitu bezala sentitzen naiz. Aske. Ezeren beldur barik. Bidea oztopoz josita egon arren unean unekoA senti dezakedala soma dezaket.

Dantzalekuko girora jarri dut erritmoa, lasaia, presarik gabekoa, biharko kezkak alde batera lagata.

Bertara sartu naiz. Jendearen zurrumurrua nabarmena da. Denak musikaren erritmora bikotekideari xuxurlaka. Denak beraien arteko maitasunaren artean gatibatuta. Bihotzaren taupadak harrapatu ezinean.

-Eder hori, nirekin dantzatu nahi?- entzun dut ahots lizun, baina era berean ahots goxo bat.-

-Bai, nola ez.-erantzun diot nire baitatik at nabilen bitartean. Bere bi eskuak nire gerribuelta biluziari itsasita jarri ditu. Nik, berriz, bere lepagain zabalean ezarri ditut neureak.

Baietz esan diodan momentu berberean ez dakit neure onenetan nengoen, baina orain ez du merezi neure burua horrela zigortzeaK.

Hitz egiten jardun dugu ia gau osoa. Beno, nire hitz-jarioak ez diote Joeli bereak esaten utzi. Horregatik, bere izenaren berri bakarrik izan dut. Zoragarria izan da, bakoitza ametssetako laino batean murgildurik.

Jada amaitu da dantzaldia. Eztiz bustiriko gaua dirudi. Gozo-gozoa. Bukaerara iristeko nahia ustela bilakatu zaigu inoiz baino motzagoa egin baitzaigu.

Kanpoan izugarrizko hotza egiten du. Ilargi betea dagoela irudika dezaket. Dardarez dut gorputz osoa eta izoztuta nire esku eta hanketako hatzak.

Joelek bere gabardina iluna ezarri dit sorbaldan behera. Hotzaren hotzez bion gorputzekin elkar babestuta gaude. Ni, berriz, hotzaren biktimarena egiten bere presentzia irabazi nahian.

Itsasertzeko olatuei so eginaz hasperen luze eta sakon bat egin dut. Joelek eskua estutu dit astiro-astiro. Nik, berriz, begiez imintzio bat egin diot irrifarrarekin lagunduz.

Biok elkarrenganako maitasunaren gatibu gara. Biok lotuta gaude, bakoitzaren maleziazko espresioa ezkutatu ezinean. Segundu bat aski izan da sentitzen duguna adierazteko. Joelen arnas hotsen norabideak interpreta ditzaket. Bere presentzia nirea dela ohartu naizenerako, bere hatzek nire kokotsa laztantzen zuelarik musu luze bat eman dit ezpainetan. Berau izan da nire iluntasunaren argi bat, distiratsuenetan distiratsuen. Hala ere, uko egin behar izan diot musuari. Atzera, alegia. Hau ez da nire ohiko jokabidea. Jokua jarraitzea nire jarrera mespretsatzea izango litzateke. Kaltegarria gerta liteke nire baitarako. Ni ez naiz horrelakoa.

- Maite zaitut, Joel. Honek jarraipen bat behar lukeen arren, berau ez da izan nire patuaren erakusle. Nire patuak beste zerbait bila dezake ezustean halako haize boladetako batek sua itzaltzeko arriskua izan dezakeen bezala. Sentitzen dut, asko sentitzen dut.

Kale amaigabeetako faroletako argiren bat piztuko zen seguruenik, negar-malkotan ari naizela ohartu baita Joel.

Bera errealtatean nolakoa den ikusi ahal banu, agian iritzia aldatuko nukeen, eta baiezkoa esango. Orain ez dago atzera bueltarik.

Buruko min izugarriak jaiki arazi nau. Bart gauekoa amets bat izan ote zen edo ez pentsatzen jardun naiz. Zoritxarrez, ez. Egiatan gertatu zen. Momentu erromantikoa izan zen oso. Oraindik

bere ezpain samur haiek nirearekin jolasean ari direla iruditzen zait... Atzoko etengabeko edanaldi haren ondorio izan zela uste dut. Hala pentsatu nahi nuke behintzat.

Triste daukat arima. Begi lausotu hauek ez didate etorkizunean zer datorkidan ikusten. Egunak bete betean bizi nahi ditut gainerakoan antzera. Nire goputz hau malenkoniatsua dela kontsidera dezaket. Dena neure barruan gordeta, iluntasunean.

Buruari milaka jira-buelta eman ostean zera erabaki dut: dena utzi eta alde egingo dut. Hemendik at. Mundu hobeago baten bila. Utikan hemen geratu zaizkidan usadio txarrak!

Hondartzari azken begiratua bota diot. Gogoan ditut nire oroimen haiek. Ilunabarrero jartzen nintzen zerumugara begira ostadarraren zazpi koloreak nire begi distiratsuetan isladatzen zirelarik, eta gogoan dut itsasertzean lehertzen ziren olatu haiek zenbat izan zitezkeen zenbatzen jarduten nintzenean ezjakin baten moduan. Baina itsutasunak harrapatu ninduenetik ez naiz ezer ikusteko gai izan. Ni beti ilargiaren aldekoa izan naiz, ilargiarekin itsutzen diren pertsona horietako bat. Gau osoa emango nukeen ilargiari so eginaz eta zeharo hipnotizatzen ninduenean beti zegoen zerbait enbarazu egingo zidana. Kilkerren hots aspergarri hori ez bazen, zeharo asaldatutako kaio haien zurrumurru gogaikarri horiek. Baina, iluntasunaren mundura sartu nintzenetik, hori eskertzen ere ikasi dut. Azkenerako asaldatutako kaio haiek arima saltoka jartzen zidaten. Izugarri gustatzen zait beren egoera, askatasunaren menpe bizi dira, ezeren kezkarik gabe. Askatasuna lortzeko ez dakit zer egin beharko litzatekeen, baina edozer emango nuke hori izatearren.

Nire lekurik maiteenari agur esateko hausnarketa labur bat egin dut atsekabezko hasperen bat botaz. Nire ohiko maitearengan, Pierrengan pentsatu dut. Bizitza bukatzeaz daukat jada. Ez naiz ezertarako gauza. Ez dut ikusten. Ez naiz nire buruaren jabe izateko gauza. Itzaltzeaz dago zure eta nire artean sortutako sua. Batez ere nirea. Nik idatzitako azken eskutitza noizbait irakurriko bazenu, jakizu hemen ez naizela egongo. Hemendik urrun. Hala ere, nagoen tokian nagoela ere sentitzen dudana esatean ez naiz nekatuko. Uneoro nire bihotz odolduaren pean nabaritzen zaitut. Aspaldian hau esateko aukerarik ez dut izan. Orain ordea, ez naiz ezeren beldur eta are gutxiago hau esateko:

Maite zaitut, maite zaitut, maite zaitut.

Zerbait atzetik segika dabilkidala iruditzen zait. Ez dakit zer izan daitekeen...

-Ma chérie! Ma chérie!- Xuxurlatu dit norbaitek, ahots fin, maitakor eta frantses batean.-

Izerdi tantak etengabeak dira momentuan. Nor izan zitekeen pentsatzen jarrita, nire bihotzak hegaka alde egingo duela iruditzen zait. Momentu honetan nire itsutasunean ezagutzen ez nuen askatasun-argi bat piztu da:

-Pierre, etorri zara. Nire bila etorri zara. Zu zara, maitea?

Bere bihotz taupadak nire esku-ahurrean sentitzen ditut. Nire eskuak bere aurpegian kokatu eta maitekiro lazandu dut emeki-emeki, denbora existitiko ez balitz bezara. Gero oroitzen ez nintzen musu "frantses" horietako bat eman dit ezpainetan. Biok amodioaren sarean harrapatuta gaude. Bion bihotzetako geziak bihotz bakar batean gatibatuta daude. Maitasunaren munduan kontzentratuta. Berak laztan bat, nik beste bat. Berak musu bat, nik beste bat. Biok biotara gaude. Elkar itxaroten, batek zer egingo besteak jarraipen emateko. Bizitzan noiz bizi izan dudun unerik sineskaitzena da hau, baina, era berean erromantikoena.

Damututa nago hemendik joan nahi nuela esateaz. Betirako hemen egon nahi nuke, nire maitearekin. Berari agur esatea ezinezkoa egiten zait. Bera da ni osatuko nauen sendagaia. Bera da nire bizia. Hala ere, joan beharra daukat.

-Zure begiak ez dira ohikoak. Zurbil zaude. Zer gertazten zaizu, maitea? Orain hemen nago, zure ondoan eta bizi naizen artean ez naiz zure ondotik mugituko. Maite zaitut Roxanne!- Galdetu dit ahots kezkatu eta ozen batez erreakzionatu duen momentuan .-

-Nik ere izugarri maite zaitut, baina nirekin zauden azken momentua izango da hau. Sentitzen dut. Ezin dut mundu honetan jarraitu. Ni ez naiz hemen bizitzeko gauza. Huts egin dizut, badakit. Badakit ez dudala mundu honetan egotea merezi. Hala ere jakin ezazu gauza bat: gorputz eta arima maitatu nauzun bezala, nik ere, aurrerantzean, askatasunean maitatuko zaitut. Hemen izango ez den leku batean eta libre biziko naizen beste erresuma batean.

Pierre, gera zaitez orain esango dizudan honekin: Haize bolada indartsuena etorrita ere ez da gure maitasunaren su-garra itzaltzeko gai izango.

Noizbait egingo dudana ulertzen saiatzea eskatzen dizut.

.....

Pierre, nire behin-betikoa:

Nire ondoan zaude, nire gorputz beilaren eskuek ebatuta zauzkatelarik. Ilargia ageri da jada eta eguzkiaren azken izpiek isurtzen ari zaren zure banan-banako malkoak zenbatzen dihardute.

Orain ezingo dut irri egiten zidan ñabardura apaineko hodeiertza ikusi. Orain, biok bion eskuez ainguratuta, itsasoko uhinen zurrumurrua maitsun hitzak kulunkatzeko propio egindako sinfonia amaiezina behin betiko entzun eta sentitzea dut amets.

Ez adiorik.

Zure betikoa: Roxanne